

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Jendaurrean jartzea ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaindu behar dutenen 2025eko errolda eta borondatez ordaintzeko epea

Jakinarazten da, ezen iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo hamabost egun balioduneko epean, 2025eko ekitaldiko zerga errolda hauek ikusgai egongo direla udal bulegoetan:

Landa eta hiri ondasun higiezinaren (OHZ) eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zerga.

Komenigarri jotzen diren erreklamazioak edo alegazioak udal bulegoetan aurkeztu ahal izango dira, idatziz eta alkate-lehendakariari zuzenduta.

Kobratze aldia: 2025eko urriaren 27tik 2025eko abenduaren 29ra bitartean, 2025eko OHZri dagozkion ordainagiriak borondatezko aldian ordaintzeko aukera egongo da, eta abenduaren 10ean igorriko dira helbideratutako ordainagiriak.

Oharra: zergadun guztiei gogorarazten zaie ordainagiri guztiak nahi duten banku erakundean helbideratu ditzaketela, bai eta hobaria eskatu ere, irailaren 15a baino lehen.

Iruña Oka, 2025eko ekainaren 5a

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ